

“AMATASUNA”

Tenpluaren kanpoaldean itsasoari begira dagoen eskultura hau, “AMATASUNA” izenekoa, 2001ean ipini zuten eta Jorge Oteiza “betierekoak” egindakoa da. Oteiza izan zen XX. mendeko arte garaikidearen berritzairen handienetako bat, eta baita Debako arte eskola 1969an sortu zuena ere.

Egilearen esanetan, obra hau, Itziarko Andre Mariaren ohoretan egin zena, hein batean bere emaztearentzako omenaldi moduko bat izan zen, Itziar hura ere.


Corten altzairuz egindako hiru plantxez osatuta dago. Plantxak oxido patinaz estalita eta forma angeluzuzenean moztuta daude. Oinarri baten gainean soldatuta, kurbatu eta tolestu egiten dira, hutsuneak eratzetik amatasunaren hainbat ikuspegi sortuz.

Hutsunea eta espiritualitatea

“Amatasuna” obrak amatasun irekia erakusten du hutsune oteizatarraren barruan. Eskultura hutsune existencial bat da, ingurune osoa bere baitan hartzen duena, espiritualitatez beteriko espazioa, hemendik gertu dauden Ekain eta Praileaitz paleolitiko santutegietan gertatzen den moduan.


Hiru ikuspegi

Eskulturaren inguruan biraka gabiltzala, amatasunaren hainbat une bereiz ditzakegu. Ikuspegi batetik, artistak haudun dagoen emakume baten sabela erakusten digu; beste batetik, ume bat amaren sabelean; eta beste batetik, Ama Birjinaren irudi klasikoa, Haurra magalean duela; tenpluaren barruan dagoen XIII. mendeko tailla erromanikoaren bertsio oteizatarra.



La escultura “AMATASUNA” (Maternidad) situada en el exterior del templo y orientada hacia el mar, fue instalada el año 2001. Es una obra realizada por el “inmortal” Jorge Oteiza, uno de los grandes renovadores del arte contemporáneo durante el siglo XX, así como fundador en 1969 de la Escuela Experimental de Arte de Deba.

Según su autor, esta obra, realizada en honor a la Virgen de Itziar, era en cierto modo un homenaje a su esposa, llamada también Itziar.



Tres Visiones

A medida que vamos girando a su alrededor podemos apreciar diversos momentos de la maternidad. Desde cierto ángulo, el artista muestra el vientre de una mujer embarazada. Desde un ángulo diferente vemos a un niño en el interior del vientre materno, y desde otra posición podemos apreciar la imagen clásica de la Virgen con el Niño sentado sobre sus rodillas, una versión oteiziana de la talla románica del siglo XIII que se encuentra en el interior del templo.

La obra está formada por tres planchas de acero *Corten*, cubiertas por una pátina de óxido y cortadas de forma rectangular. Estas planchas, soldadas sobre una base, se curvan o flexionan formando vacíos y generando así diferentes visiones de la maternidad.

Vacío y espiritualidad

“Amatasuna” representa la maternidad abierta dentro del vacío oteiziano. La escultura es un hueco existencial que acoge dentro de ese vacío a todo el entorno, un espacio cargado de espiritualidad, tal y como sucede en los cercanos santuarios paleolíticos de Ekain y Praileaitz.